

## SEME OSPETSUAK

### Migel Lopez de Legazpi

Zumarraga 1500/1501-Manila, 1572ko abuztuaren 22a

Kolonizatzailea. Joan Martinez de Legazpi eta Elvira Gurruchateguiren bigarren semea. Zumarragako zinegotzia izan zen 1526an, eta Aleriako Alkatetza Nagusiaren eskribaua 1527an aita hil zitzaionean. Geroxeago, 1528an, Mexikora joan zen, bertan Isabel Garcesekin ezkonduz; bederatzi seme-alaba izan zituen, eta Monetaren Etxean hainbat kargu izan zuen, 1551 an Eskribau Nagusi postura helduz eta Mexikoko Hiriko Alkate Nagusi karguaz 1559ean.

Felipe II.a erregeak sartaldeko irletarako espedizioa agindu zionean, Andres Urdaneta fraileak bultzaturik inondik ere, Nueva Españako erregeordeak, Velascok, espedizio-buru izendatu zuen Legazpi 1561ean, eta erregeak berak *konkistatzen dituen lur guztietako Almirante, Jeneral eta Gobernadore*.

Espedizioaren gastu gehienak Legazpik berak ordaindu zituelarik, 1564an abiatu zen Lapurren Irletarantz (geroko Filipinetarantz alegia), eta lehenbizi Guam irlan geldialditxo bat egin ondoren, Samar irlara heldu zen 1565ean; bertakoek aurka egin zioten sutzuki, gaztelauak etsaitzat hartzen baitzituzten. baina bake bidez jokatuz bere aldera bildu zituen.

Urte horretan bertan heldu zen Boholera, han *odolezko itun* bat eginez Sikatuna *datuarekin* (buruzagiarekin); horretara bertakoen fideltasuna lortu zuen. Gero Zebu irlara joan zen, han 1571 arte gaztelauen mendeko lurren hiriburu izango zen San Miguel herria eta *Santo Niño* tenplua sortuz.

Bertako mahomatarren eta portugaldarren erasoak jasan zituen, eta gaztelauen beren motinak ere bai. 1570ean Manilara heldu zen. eta 1571an hiri honen birfundazioa zertu zuen. Herrera arkitektuaren proiektuari jarraiki. Luzongo iparraldea kolonizatzeke. Joan Salcedo bere biloba jarri zuen espedizio baten buru.

Jauregi pobre batetan hil zen, 1572an, bere biloba itzuli zain, eta sekula ez zitzaion Felipe II.aren Zedula, *Filipinetako Bizjarteko Gobernadore eta Kapitain Jeneral* izendatuz emandako hura iritsi.

Gaur egun, Migel Lopez de Legazpik urruneko lur haietan lagatako oroitzapen onari esker, Zumarraga bi hirirekin senidetuta dago. Legazpi (Albay irlan) eta Tagbilaran (Bohol irlan) hiriekin hain zuzen.

## **Nicolas de Soraluze**

Zumarraga, 1820 - San Sebastián, 1884

Politikari eta historialaria. Umetan, Urretxun ikasi zuelarik Iparragirre ezagutu zuen. Geroago Azkoitira joan zen, Jesuiten Eskolan ikastera, eta bertan piztu zitzaion historia zaletasuna. Lehenbiziko Karlista Gerratik libratzeko, gurasoek Frantziara bidali zuten, eta handik Buenos Airesera. Bertan egon zen 1855 arte.

Urte horretan Espainiara itzuli zen, Argentina eta Uruguayko Ohorezko Kontsulari tituluak besapean zituela, eta politikan sartu zen, udal mailan lehenik, Migel Lopez de Legazpiren jaiotetxea babestuz, ezen eraikitzen ari ziren trenbideko lanek aurrean eraman zezaketen, eta Zumarragaren interesak Batzar Nagusietan aurrera ateraz. Bera izan zen Zumarraga Gipuzkoako Ermandatetik denbora epe labur batez bereizteko lehen pausua egin zuena, Zumarragako tren geltokia eta Zumaiako kostaldea lotuko zituen errepidearen eraikuntza lanek eragindako arazoak zirela tarteko.

Bigarren Karlista Gerran zehar, Donostia liberal hiriaren alkatea izan zen, eta itun bat sinatu zuen Lizarraga jeneralarekin, preso truke bat egiteko.

Gipuzkoan izan diren historialaririk nabarmenetakoa izan da; Historiaren Errege Akademiako kidea izan zen, eta Monumentu Historikoen Batzordeko buru, besteak beste.

Eginiko lanen artean azpimarra ditzakegu *Historia de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa*, *Historia de J.S. Del Cano* eta *Últimas líneas de Soraluze*.

## **Leturia Anaiak**

Pedro Leturia Mendia 1891ko azaroan jaio zen, eta 1955eko apirilean zendu Erroman. Jesuita zen.

Eliz historia ikasi zuen Munichen, eta gai horixe irakatsi zuen Oñan eta Erromako Unibertsitate Pontifizioan. Pio XII.ak hainbat historia lan egiteko agindu zion.

Loiolako San Inazioren figura eta historiari buruzko azterlanetan gehien nabarmendu direnen artekoa dugu.

Juan Lino Leturia. Organojolea eta Zumarragak izandako lehenbiziko musika bandaren zuzendaria. Musika irakaskuntzan aritu zen, eta ikasleen artean izan zituen, besteak beste. Secundino Esnaola eta Busca Sagastizabal.

Zumarragako Udalak, Leturia Anaien izena gogoan, herriko enparantza bati haien izena eman zion 1968an.

## **Juan Ignacio Busca Sagastizabal**

Zumarraga 1868 - Zarauz 1950

Organojolea eta konpositorea. Oso gaztetatik aritu zen musika ikasten Juan Lino Leturiarekin eta Tolosako Gorriti maisuarekin, eta Salamancan eliz ikasketak egiten hasi eta gero, Jimeno, Mendizabal, Morera eta Arrieta irakasleekin amaitu zituen bere musika ikasketak. Madrilen, Teatro Real-eko organojolea izan zen, eta baita beste zenbait elizatakoa ere.

Madrilen egonaldi bat egin arren, ez zuen bere jaioterria ahantzi eta 1893an, dagoeneko harmonia eta konposizioan maisu ospetsu zela, Udal Bandako zuzendari artistikoa izatea erabaki zuen, Martin Elolarekin txandaka arituz hain zuzen, hau zuzendari teknikoa baitzen.

Konpositore lanetan, eta erlijio konposizioei dagokienean, Madrilen 1912an eginiko XXII. Nazioarteko Biltzarraren Ereserki Eukaristikoa izan zena nabarmentzen da, *Cantemos al amor de los amores, cantemos al Señor* izenekoa, Alfontso XIII.a erregearen aurrean interpretatu zuen, eta hainbat hizkuntzatara itzulita dago gauegun. Lan horrez gain, *Stabat Mater* eta *Misa Pastorela* aipa ditzakegu.

Konposizio herrikoien artean, besteak beste, *Bi euzko abesti* eta *Himno a Legazpi* nabarmentzen dira, azkeneko hori Filipinak kolonizatu zituenaren estatua inauguratzeko konposatu zuen.

Donostian 1949an eginiko *Mila Abotsen Kontzertua* hartan nabarmendu zen, bertan bere bi euskal abesti eta bi galiziar abesti interpretatu baitzituzten.

Zumarragako udalak bere omenaldia eskaini nahi izan zion 1968an, eta Eitza auzoko etxebizitza sail bati haren izena eman zion.

## **Secundino Esnaola**

Zumarraga, 1877 – Donostia, 1931

Musikaria. Bere lehenbiziko musika eskolak Zumarragako Jasokundeko Andre Mariaren elizan hartu zituen, Juan Lino Leturia organojolearen eskutik, honexek irakatsi zion solfeoa. Kantuan ere nabarmendu zen.

Hamalau urte zituela Bergarako Seminarioan sartu zen, eta guztien mirespena eragin zuen, ahots paregabeaz, San Pedro elizan, eta geroago Salamancako Apaizgaitegi Kontziliarrean; azkeneko honetan, bere ikaskideez koru bat osatu eta zuzendari aritu zen

21 urte zituela eliz ikasketak utzi eta Donostiara itzuli zen, San Bizente parrokiaren koruzuzendari plaza hartuz; bertan solfeoa eta kantua irakatsi zituen, eta hobekuntza ikasketak hainbat ere burutu zuen, harmonia ikasiz Bonifazio Etxeberriarekin, eta kontrapuntu eta fuga, berriz, Julio Valdesekin.

1902an, Norberto Luzuriaga hil zelarik, Donostiako Orfeoiko zuzendari izendatu zuten, eta handik gutxira sari sorta baten lehenbiziko alea bildu zuen, Royango Orfeoi Lehiaketa Nazioartekoan hain zuzen.

Orfeoia berpiztu zuen, emakumeak eta umeak sartuz hainbat kexa izan zen arren, eta historian izan diren onenen mailara igo zuen. Donostiako Kasinoa zuen emanaldietarako tokirik gustukoena.

Zuzendari ospea bereganaturik, hobekuntza etengabe jarraitu zuen kantu-maisu mailara heldu arte, eta neurri txikiko erlijio-konposizioak ere idatzi zituen.

Frantziako Gobernuak *Officier de l'Instruction Publique* titulua eman zion.

*Frantziar Ikas Palmak* eta *Alfontso XII.aren Gurutzea* ere eskuratu zituen. Zumarragako herriak *Seme Kutun* izendatu zuen 1927ko uztailaren 3an, Orfeoian sartu eta 25 urtera hain justu. Egun horretan bertan Zumarragara etorri ziren Donostiako Orfeoiko berrehun kideak, eta Elizako koruan hainbat obra eskaini zuten; omenaldia Udaletxean egin eta gero, jendeaurreko kontzertu bat izan zen udal pilotalekuan.

Zendu zelarik Donostian izan ziren hiletak, herriaren samin adierazpen handi eta barru-barruko batez.

## **Jose Maria Busca Isusi**

Zumarraga, 1916-1986

Gastronomia eta idazlea. Batxilergoa Donostiako Jesusen Bihotza Eskolan egin eta gero, Madrilera joan zen Natur Zientzietako ikasketak egitera; bertan ezagutu zuen Julio Caro Baroja, eta honen bidez Ricardo eta Pío Baroja ere bai.

Bere artikulu, liburu eta hitzaldietan, batez ere gastronomiaz arduratu zen, eta ospe handia lortu zuen euskal sukaldaritzan. Argitaratutako liburuen artean batzuk nabarmentzearren, *Guía para la recolección de setas*, *Los vinos de la Rioja Alavesa*, *Estire sus billetes en la cocina*, *Setas*, *Con buen vino se anda el camino*, *El salmón del Bidasoa*, *Alimentos y guisos en la cocina vasca*, eta *La cocina vasca de los pescados y mariscos* izenekoak aipa ditzakegu.

Aranzadi Zientzi Elkartearen Lehendakariordea izan zen, eta barazki tratatuen lehen enpresa fundatu zuen, Martzillan (Nafarroa). 1982ko ekainaren 1etik 1986ko ekainera arte *El Diario Vasco* egunkarian aritu zen, “El Mirador” sailean hain zuzen. Osatu zuen gastronomiari eta elikadurari buruzko liburutegiak hiru mila eta bostehun ale baino gehiago zituen, Arruerena bera gaindituz.

Zumarragako Udalak Herriko *Seme Kutun* izendatu zuen 1984an. 1986az geroztik, bere omenezko Buskantza Lehiaketa izaten da.